



Kultura

'POEMA LIBURU BAT —IRAKURTZEKO JARRAIBIDEAK—'

Poeta eta maitasuna

Idazlea: Angel Erro. Argitaletxea: Erein.

Irati Majuelo -
2022ko azaroak 6

0



Ia bi hamarkadaz poesiarik argitaratu gabe egon ostean, Angel Erro idazle eta zutabegileak *Poema liburu bat* atera berri du Blas de Otero-Angela Figuera poesia lehiaketaren karira. Azken liburutik hona igarotako urteak aipatzen ditut berariaz, garaiok ezaugarritzen dituzten abiadari zein idatzi-ahala-publikatu joerari izkin eginez, denborak eta patxadak ondutako lerroak biltzen dituelako lan honek, eta nabari da.

Izenburuari arreta jarrita (*Poema liburu bat—irakurtzeko jarraibideak—*), irudi luke jarraibide-orri bat dela liburu honetan aurkituko dena, baina irakurtzerakoan egin beharreko urratsak edota aintzat hartu beharreko irakaspenak izendatzetik urrun, beste zerbait da Errok lortzen duena. Irakurlearekin elkarrizketan ari da idazlea, zenbaitetan «poeten bekatu nekagarria» den bigarren pertsona singularra erabilita, edo bestela ere, gizaki oren egunerokotasunean azaleratzen diren oinazea, maitasuna, beldurra, desira hitzetara ekarriz.

Maitasuna da, ziur aski, poemotan gailentzen den gaia, adiera zabalean. Izan maitearekikoa, amarekikoa, poesiarekikoa, izan maitemin, edertasun, oroitzapen forman. Gaiaren bueltan, badira zenbait *personaia* bilduma osoan zehar errepikatzen direnak, eta horiek dira Poeta (eta Maitea), Ama eta Poesia. Horien bidez maitasunaren geruzak agerian geratu eta beste emozio, eszenatoki, pertsonekin gurutzatzen dira. Poetak edertasuna dakar, jolasa, ziurtasunik gabeko etorkizuna, orainean datzan maitasuna. Amari eskainitako poemek, berriz, sufrimendua eransten diote maitasunaren paisaiari, objektu pertsonalek kapsulatzen dituzten memoriak, bestearen hutsunearen formak, heriotzaren presentzia. Bereziki ederrak dira amarekin eta haren (oro)minarekin sortzen dituen elkarrizketak. Azkenik, literaturari dagozkion lerro asko biltzen ditu liburuak, idazketaren porrot aurreikusia edota irakurketaren plazera ematen dutenak aditzera, maitasun konpartitu bat sortuz idazlearen eta irakurlearen artean, eta betiere gogoratuz «poesia arimaren ariketa ere badela / ez ahanzteko, errepika, erritmoa, erritua».

Ez du akaso ildo nagusi bakar bat, ez du egitura itxi bat ere, mesanotxean eduki eta aldizka poema bat irakurtzeko liburua izan daiteke, edota arratsalde batez hasieratik amaierara jarraitzekoa. Berdin estiloarekin, tonu berezia gordetzen du poema bakoitzak, lanketa desberdin bat. Hala ere, poetaren ahots garden eta umilak, ongi neurturiko hitz eta irudiek, melankoliak eta umore puntuek ematen diote batasuna, ez dago poemarik lekuz kanpo. Azken finean, irakurketara erraz egiten den poesia da Errorena, esanahi ezkuturik edota hizkuntzaren estutze bortxaturik gabea, baina barnean lirikaren ahalmena eta literariotasunaren muin ezinbestekoa biltzen dituena. Zailena egin du, beraz.

Sareko BERRIAzalea:

Irakurri berri duzun edukia eta antzekoak zure interesekoak badira, eskari bat egin nahi dizugu: *Berria* diruz babestea.

Zuk eta zure gisako sareko milaka irakurlek egindako ekarpenarekin, eduki gehiago eta hobeak sortuko ditugu. Eta, zuekin osatutako komunitateari esker, publizitateak eta erakundeen laguntzek bermatzen ez diguten bideragarritasuna lortuko dugu.

Euskarazko kazetaritza libre, ireki eta konprometitua eskaini nahi dizugu egunero; bizi zaren munduaren eta garaiaeren berri ematen segitu.

Izan BERRIAlaguna

Gaiak

Angel Erro

Erein

Literatura euskaraz

Literatura

Arteak eta kultura

Euskal Herria

Albiste gehiago

**Mimi Parker musikaria hil da, 55 urterekin**

EDU LARTZANGUREN

Perkusio jotzaile eta abeslariak Low taldea sortu zuen, 1993an. Euskal Herrian ekainean jo zuen azkeneko aldiz, Miarritzen, Anarirekin. Parkerrren minbizia dela eta, bira bertan behera utzi behar izan zuen taldeak.

**Hotsa apalduz**

ION CELESTINO

**Idatzi ezin denaz idaztea**

MIKEL LIZARRALDE

'Slaughterhouse Five' gerrari buruzko nobela satirikoa da Kurt Vonnegut idazle estatubatuarren lanik ezagunena. Aste honetan, ehun urte beteko dira hura jaino zenetik.

**Maddi Ariztia: beldurrez eta ahantz**

AINIZE MADARIAGA

Maddi Ariztia ipuin biltzailea izan zen Saran, «istorio-erraila» onei bildu zizkienak paperean etzan zituen Aita Donostiak akuitaturik. Ezezaguna den folklorista hau, alta, «bide urratzaile» gisa daukate aditu guziek.

Astekaria

Asteko gai hautatuekin osatutako albiste buletina. Astelehenero, ezinbesteko erreportajeak, elkarrizketak, iritziak eta kronikak zure posta elektronikoa.

 Pribatutasun politika eta [Lege informazioa](#) irakurri ditut eta onartzen ditut

idatzi zure posta elektronikoa

Harpidetu

Gehien irakurriak

1 **Barrionuevo Espainiako Barne ministro ohiak gerra zikina antolatu zuela aitortu du**

PAULO OSTOLAZA

2 **Barrionuevoren adierazpenek gaitzespen oldea eragin dute**

EDU LARTZANGUREN

3 **Mimi Parker musikaria hil da, 55 urterekin**

EDU LARTZANGUREN

4 **Etxean esklabo**

ANJEL LERTXUNDI

5 **Erabileraren arazoa**

GARIKOITZ GOIKOETXEA

Iruzkinak kargatzen...



berria

Berria.eus - Euskal Editorea SM
Telefonoa: 943-30 40 30
Faxa: 943-59 01 72
Webgunea: webgunea@berria.eus
Publizitatea: publi@bidera.eus
Harpidetza: harpidetza@berria.eus

JARRAITU

Facebook

Twitter

Instagram

Youtube

RSS

LEGEA

Lege Informazioa

Pribatutasun politika

Cookieak

Zozketak

Lan eskaintzak

Lizentzia

Publizitatea

Bidera zerbitzuak

MIDAS Media

zerbitzua eta
lana euskarazEUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Gipuzkoako Foru Aldundia



UZEI

emakumeen eta gizonen
berdintasunerako
lankidetzarako erakundeaFondo Europeo de
Desarrollo Regional (FEDER)
"Una manera de hacer Europa"
Eskualde Garapenerako
Europar Funtza (ERGF)
"Enfoque global modo bai"berria
taldea

berria

bidera
zerbitzuak

HITZA

Mauka

BADOK

